

ITSASPEKO ZINEMA

Itsaspeko zineman zaude. Jesarri eta Elena Odriozolak ilustraturiko pertsonaia hauek beha itzazu une batez...

Gogoa duzunean, eskuartean har ezazu "Titiritesa" (Xerardo Quintiá eta Maurizio A. C. Quarello) album ilustratua eta goza ezazu.

Maitatzeko zenbat modu ezagutzen dituzu ? Ba al dago maitasuna neurtzeko tresnarik? Lagunen arteko maitasunak ze kolore dauka?

Maitasuna harreman guztietan egon daiteke. Bikote harremanetako maitasuna ez da lagun arteko maitasuna baino garrantzitsuagoa edo handiagoa. Harremanetan, korapiloak egoten dira. Ez dago korapilo gabeko harremanik baina guztiak errespetuan oinarritzen dira. Eta horrela ez bada, ez dago maitasunik.

Apurka-apurka irlara heltzeko unea heldu zaizu. Prest al zaude?



IRLA

Ikusten duzu bihotz hori? Gu guztiona da. Bihotz kolektiboa. Gauza bereziak maite ditugunon bihotza. Gure altxorra. Gure taupadak.

Gerturatu zaitez eta mimo eta arreta handiz aukeraturiko liburuekin gozatu. Ez ahaztu, irlaraino heltzeko egindako ibilbidean ikusitakoa. Bihotzarekin ikusitakoa ere ez, noski.

Antolatzaileak:



Itsaspeko Bihotzak

Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak

Zemoria 25, behea. 20.013 Donostia

Gipuzkoa

www.galtzagorri.eus

Telefono zenbakia: 943471487


E-posta: galtzagorri@galtzagorri.eus

Itsaspeko Bihotzak

Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak

Itsaspeko bihotzak

Haur eta Gazte Literatura
eta hezkidetza aretoa



Azaroaren 5etik 9ra Tolosako Haur
Liburutegiko azken solairuan
Ordutegia: 17:00-19:00

Itsaspeko bihotzak aretoan zaude. Urpekari edo arrain izateko prest? Ongi etorri mundu berezi honetara. Bertan bihotzarekin ikusten da eta ez soilik begiekin.

Itsasargitik abiatu eta irlaraino doan itsaspeko ibilbidetik joango gara igerian. Astiro joan zaitez. Irlara iristean, itsaspeko bihotzen altxorra izango duzu zain.

Izan dadila igerialdi polita, Bidai on...



ITSASARGIA

Itsaspean sartu aurretik, itsasargiaren ondoan koka zaitez, mesedez. Olatuen soinuak entzuten dituzu?

Ohar zaitez orain itsasargiaren seinaleaz. Ikusi duzu etenik gabe argitzen duela? Itsasoan barrena abiatzeko prest? Gogoratu tentuz eta astiro egin beharreko bidaia dela, arrain, marmoka eta itsasizar asko dago-eta!

URPEKARIAK DANTZAN

Adela Turin idazlearen "Arrosa eta leuna" album ilustratua daukazu eskuartean. Arre-

taz irakurri. Eta ondoren beha itzazu urpekariaren gorputzak eta aukeratu otzaratik eurentzako arropa. Truka itzazu bati jarritakoak ondokoarekin... Ba al dago desberdintasun handirik? Akaso Turinen elefanteen antzera gertatzen zaie hauei, eta kanpotik egiten ditugu bereizkeriak?

Nahikoa jolastu duzunean, hurrengo txokora abia zaitez. Astiro.

LANBIDEEN TXOKOA

Txoko honetan Arantxa Iturbek idatzi eta Elena Odriozolak ilustratutako "Norak suhiltzailea izan nahi du" idazlana duzu. Zer gertatzen da ogibidea aukeratu behar dugunean? Erraztasun berdina daukagu emakumeok eta gizonok?

Zenbaitetan izan nahi duguna izateko zailtasunekin aurkitzen gara.

Nahi duzuna izatera jolas zaitezke. Orain itsaspeko bihotzen aretoan zaude eta gustuko ez duzuna iraul dezakezu. Hartu klarion bat eta margotu zure irudia nahi duzun zereginarekin eskuartean. Eta ondoren gogoratu, itsaspetik irtetea, gustuko ez duzuna ere, aldatzeko gaitasuna duzula...


Badago hemendik gertu itsaspeko bat. Urpekariak bertan bizi dira. Ikustera joan nahi duzu? Isil-isilik beraien etxeraino abia zaitez...

MUNDUA ERAIKITZEN

Dena txukun-txukun dago urpekariaren sukaldean. Nork jasoko zuen hau? Eta itsasoko biztanleek jaten dituzten alga goxo hauek nork prestatu ditu?

Horren garrantzitsua den lan hau berez gertatuko balitz bezala ematen du. Itsaspeko bihotzei gustatu egiten zaigu ordea lan honekin kontziente izatea eta egiten duenari errekonozimendua ematea. Noski, ederrena ardurak elkarrekin partekatzea da!

Eta... Zer esan besteekin harremanak zaintzeaz? Zeinen garrantzitsua den gu pozik bizi ahal izateko. Dena den, beti ez gara pozik egoten. Goazen



mundu honetan sartzera. Urpekariaren itsaspetik atera eta hurrengo espaziora abiatu zaitez...

URAZPIAN SENTITUZ

Geldiune honetan ipuintxo desberdinak aurkituko dituzu: "Tximeleta belarriak" (Luisa Agilar/Fernando Rey), "Ariketa fisikoa" (Rose Impey/Iñaki Zubeldia), baina batez ere, "Kezkamuxelak" (Anthony Browne/Koldo Izagurre) klasikoa. Hartu tarte bat pertsonaiek sentitzen duten horretan pentsatzeko.

Ohar zaitez gune honetan dagoen korapiloarekin. Ez al zaigu horrelako zerbait gertatzen sentitzen dugunarekin? Korapilorik izan duzu noizbait?

Sarri, sabelean, bihotzean, eztarrian... sentitzen ditugu. Pertsona beste korapilo daude munduan... Pertsona guztiok kezka ditugu. Urpeko bihotzok uste dugu lagungarria dela gure laguntxoei, eta gure familiakoei kontatzea, sentitzen dugun horretan pentsatzea... hobeto bizitzen laguntzen digu. Lasaiago.

Ezin ahaztu, gure sentimenduak kudeatzeko beste laguntza garrantzitsua dela (familia, lagunak...). Nahi baduzu, irlara iritsi aurretik falta den azken txoko sekretura pasa zaitez. Ba al dakizu itsaspean ere zineak egon badaudela?